

ALBISTE IZANGO DIRA

- **Ramon Saizarbitoria:** *Kandinskyren tradizioa* (nobela).
- **Joan Mari Irigoien:** *Ipuin batean bezala* (nobela).
- **Paddy Rekalde:** *Rebel Mayo Colorao* (nobela).
- **Pedro Alberdi:** *Kafka Bilbon* (ipuinak).
- **Koldo Izagirre:** *XX. mendeko poesia kaierak*, 29-40. zenbakiak (poesia).
- **Igor Estankona:** *Tundra* (poesia).
- **Mariasun Landa:** *Marlene eta taxizapata* (haur eta gazte literatura).
- **Anjel Lertxundi:** *Ezkutuko maitea* (haur literatura).
- **Anjel Lertxundi:** *Aizak eta aizan, elkarrekin dantzatzan* (haur literatura).
- **Aingeru Epaltza:** *Urtegi jauna* (gazte literatura).
- **William Shakespeare:** *Hamlet* (itz.: Juan Garzia).

NARRATIBA

Protagonista neskato bat duen nobela labur batekin itzuliko da Ramon Saizarbitoria literatur erakusleihora

POESIA KAIERAK

Susa argitaletxeak ostiralean kaleratuko du XX. mendeko euskal poeten antologiaren azken ale sorta

SHAKESPEARE

Egile klasikoaren 'Hamlet' da itzulpenen artean argitaratuko den lanik enblematikoen; Juan Garziak itzuli du

zendutako biografiak plazaratzen hasiko baita Axuri Beltza sailean; Bob Marley, Malcolm X eta Van Goghenak plazaratuko dira lehen labealdian, Aritz Usandizagak, Irati Jimenezek eta Xabier Gantzarainek idatzitakoak, hurrenez hurren.

BESTELAKO PROSA LANAK. Aurreko sailetatik landa geratzen den liburuen artean, honako hauek

aipa litezke: Luis Mari Mujikaren *Bideko prosak Gipuzkoan* (Hiria) eta Jon Arretxeren *Ekialdeko mamua* (Elkar) bidaia liburuak, Imanol Zurutuzaren *Errautsen arteko sugarra* (Elkar) bizi-esperientzia gogorren kontaketa, Gotzon Garateren *Zakurrak, zeure lagunak* (Elkar), askoren artean osatutako *Marihuanazko bufandak* (Txalaparta), Robert Larrandaburu *Pipas* eta Jean Dominique Iriarten *Xiberoa, mendia eta kultura* (Gatzuzain)...

Pamiela argitaletxea oparodator alor honetan: Edorta Agirrerren *Ase eta gose. 2003ko almanaka*, Patxi Salaberriren *Euskal klasikoan atarian*, Bixente Serrano Izkoren *Beldurra bera zaidi* eta Inma Errearen *Literatura eta harrikoa* kaleratuko ditu.


BERTSO LIBURUAK. Bertsozale Elkartek plazan jarri berri duen *Bertsolari Txapelketa Nagusia 2001* liburu mardul ongi hornitua gain, izango da bertsozaleek eskuan gustura hartzeko beste libururik ere, hala nola *Estropada-bertsokak*, Ramos Azkarate eta Manuel Matxainen bertso bildumak edota Inozentzio Oleak Segura Irratian emandako saioen bilduma (Joxe Mari Iriondok apailatua), Sendoa argitaletxeak plazaratuak guztiak.

ITZULPENAK. Itzulpenen arloan William Shakespeareren *Hamlet* (Ibaizabal, Juan Garziak itzulia) da hurrengo hilabeteetan kaleratzekoak diren liburuen artean enblematikoen; batetik obra beragatik, bestetik Literatura Unibertsala bildumako 100. liburua delako.

Baina, ohi bezala, interes handiko beste libururik ere izango da sail honetan, Annie Ernaux-en *Pasio hutsa* (Igela, Joseba Urteagak itzulia), Sándor Márai-ren *Azken hitzordua* (Igela, Xabier Olarrak itzulia) eta Germano Almeida-ren *Napumoceno da Silva Araujo jaunaren testamentua* (Txalaparta, Bego Montoriok itzulia) esate baterako. Halaber, aipatzekoa da Koldo Izagirrek itzulitako Victor Hugoren *Idi orgaren karranka. Euskal Herrian gairi* 1843 (Elkar).

Haur eta gazte literaturaren arloan ere literatura unibertsaleko egile askoren liburuak emango dira argitara euskaturik: Nathaniel Hawthorne, Gianni Rodari, J.K. Rowling (Harry Potterren sailekoak), Juan Farias, Brian Selznick...

KULTUR GUNEA. Poesia emanaldia egingo da etzi Gaztetxean



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

Zapa Ateneo liburudendako Sejo Carrascosa inaugurazio festaren afitxarekin.

Zapa Ateneok material alternatiboa banatuko du

Gasteizko Zapatari kalean egoitza izango du kultur elkartek, pentsamendu kritikoa hedatzeko xede nagusiarekin

Ivan Santamaria | GASTEIZ

Topagune zabala eta kritikoa izateko bokazioarekin jaio da Zapa Ateneo kultur elkartea. Alde Zaharreko Zapatari kalean kokaturik, material alternatiboak saltzeko eta hedatzeko helburua jarri diote proiektuaren sustatzaileek. Haien artean, gizarte mugimendu ezberdinetako partaideak murgildu dira. Liburuak, fanzinak, diskoak, eta, oro har, merkataritza gunen tradizioaletan sarbide gutxi duten kultur proiektuak salgai jarriko dira.

Urriaren 5ean ekingo diote inaugurazio ofizialari, elkartaren egoitzan egingo den jai batekin. Aurretik, ordea, izango dituzte Zapa Ateneoa zer den bultzatzeko aukera. Bihar *Rompamos el cerco de la exclusión* (Bazterketaren muga hauts dezagun) liburuen aurkezpena izango da, arratsaldeko 20:00etan, Barakaldoko Berri-Otxoak plataformakoekin

solasteko aukera izango da. Etzi, berriz, poesia emanaldia antolatu dute Gasteizko gaztetxean. Kirmen Uribe, Xabier Olaso, Rikardo Arregi eta Maixa Lizarribarrek parte hartuko dute emanaldian. Iragan larunbatean ere kontzertu bat antolatu zuten Gaztetxean.

Irabazi asmorik gabeko kultur elkartea

Irabazi asmorik gabeko kultur elkartea izango da Zapa Ateneo, Edu Zelaia eta Sejo Carrascosa proiektuko kideek azpimarratu dutenez. Hortaz, salmentan erdietsitako diru guztia material berria erosteko baliatuko da. Etorkizunean zerbait editatzeko eta argitaratzeko asmoa ere aipatu dute. Asteazkenetik ostiralera arratsaldeko 18:30etik 21:00-etara zabalduko dute, eta larunbat goizetan 11:30etik 13:30 arte.

Proiektuak zuzenean parte hartzeko aukera zabalduko

du. Hots, nahi duten pertsonak ateneoko bazkide izan daitezke, hilero kuota bat ordainduta. Hori bai, mugak ahalik eta gutxien izateko, pertsona bakoitzak nahi duen diru kopurua sartu ahal izango du kontuan, ondoren materiala eskuratzeko.

Bazkideak lortzeko *Zaping* egin betikoari leloarekin kanpaina abiatu dute. «Pentsamendu kritikoa zabaltzeko xedea dugu. Liburu-denda txikiaren itxura du, baina zerbait gehiago izango da: topagunea, toki alternatiboa, edonori zabalik», zehaztu du Edu Zelaia.

Asanblea bidezko antolaketa izango du Zapa Ateneok, erabat autogestionatua. Merkatuaren irizpideek ezarritako mugetatik kanpo aritu nahi dute, batez ere. «Gure planteamendua ez da negozio bat, ateratzen dugun dirua proiektua zabaltzeko baliatuko da. Ikusten dugu kultura gero eta lotuago dagoela merkatuarekin, eta guk gertutasun bat eskaini nahi dugu», Sejo Carrascosak azaldu duenez. Liburudendan, hain zuzen, funts bat eratu nahi dute, aspaldiko argitalpenak ere lortu ahal izateko.

ANTZERKI-EGILEA, HISTORIALARIA... BIOGRAFIA

IMANOL ELIAS

Mailo Oiarzabal



uztarnia

KULTUR KORDINADORA

7 euro

943 - 15 03 58 / uztarnia@topagunea.com